

Lezok olerki eta ipuin sarien oinarriak argitaratu ditu

Idazlanak azaroaren 19tik 23ra aurkeztu beharko dira herriko udal liburutegian

XIV. Jon Garbizu olerki sarian eta XIV. Lope Isastikoa ipuin sarian parte hartzeko oinarriak jakitera eman ditu Lezoko Andreone udal liburutegiak. Lan guztiak euskaraz izango dira eta azaroaren 19tik 23ra, biak barne, aurkeztu behar dira Andreonen.

Lehiaketa hauetan Lezoko biztanleek edo Lezoko udal liburutegiko bazkideek parte har dezakete. Lau maila bereiztuko dira (A, B, D eta E): 6 eta 7 urtekoak, 8 eta 9 urtekoak, 10 eta 11 urtekoak eta 12, 13 eta 14 urtekoak.

Idazlanak euskaraz idatzitako olerkiak (bertsoak eta hitz jokoak barne) edo ipuinak izango dira, gai librekoak, inoiz argitara gabeak eta gehienez hiru orrialdekoak.

Sariak Maila bakoitzean liburuak erosteko 100 euroko bi bale emango dira, bata ipuin arlorako eta bestea olerki lehiaketarako. Sari banaketa abenduaren 14an izango da, 19.00etan, liburutegian.

Obrak aurkezteko zenbait baldintza daude: lan bakoitzeko gutunazal itxi bat aurkeztuko da (kanpoaldean lanaren izenburua eta egilearen adina azalduko dira, eta barrualdean helbidea, telefonoa eta izen-abizenak).

Lana kanpoan joango da eta gutunazala grapaz josita izango du (orrietan edo gutunazalean ikastetxearen izena dakarren lanik ez da onartuko). Epaimahaia antolatzaileek izendatuko dute eta bere epaia apelaezina izango da. Gerta daiteke sarietako edozein eman gabe uztea, aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez baldin badute.

2008ko urtarrilaren 31 bitartean berreskuratu ahal izango dituzte egileek lanak udal liburutegian. Epe horretan jaso ez direnak suntsitu egingo dira. Azkenik, liburutegiak gogorarazi du, gau, r 18.15ean, 4 eta 6 urte bitartekoentzat udazkeneko lehen ipuin kontaketa eskainiko duela Kontu Kantoi taldeak. >a.m.